



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 28a

120. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 10-22/ITP-00039. Interpelazioa, Europako Next Generation funtsen kudeaketaren arloko politikari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 10-22/ITP-00040. Interpelazioa, Nafarroako Kulturaren 2019-2023 Plan Estrategikoaren ezarpen-mailari eta ebaluazioari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (4. or.).
- 10-22/ITP-00041. Interpelazioa, enplegu politika aktiboei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak aurkeztu du (4. or.).
- 10-22/MOC-00098. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bide egokiak sor ditzan Nafarroako museoak Kultura eta Kiroleko Ministerioak sustatutako “Museoak sarean. Bidaiatu eta ezagutu” programari atxiki dakizkion. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 10-22/PES-00321. Galdera, Netquality SL enpresak 2014tik jasotako dirulaguntzei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (7. or.).
- 10-22/PES-00322. Galdera, Bardeetako 2 zenbakiko urreztatzaileen elkartearekin egindako akordioari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).
- 10-22/PES-00323. Galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Bardeetako 2 zenbakiko urreztatzaileen elkartearekin egindako lankidetzak-akordioa amaitzeko aurreikusitako datari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (8. or.).
- 10-22/PES-00324. Galdera, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko larrialdi-plan bat ote dagoen jakiteari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).

—10-22/PES-00325. Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredu bilakatzeko dekretuaren idazketa kudeatzeko aholkularitza pribatu bat kontratatzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (9. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **10-22/ITP-00039. Interpelazioa, Europako Next Generation funtsen kudeaketaren arloko politikari buruzkoa.**

### *ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak Europako Next Generation funtsen kudeaketaren arloko politikari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Next Generation funts europarren kudeaketa-politikari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

#### Zioen azalpena

Duela bi urte baino gehiago iragarri zen Next Generation funts europarrak iritsiko zirela, eta pandemiaren etorrerarekin sortutako arazo guztien irtenbidetzat aurkeztu ziren. Alabaina, funtsak ez dira espero bezain bizkor iritsi, eta haien kudeaketa eta gauzatzea ere ez da esperotakoa izaten ari. Halatan, interesgarria da jakitea zer neurri abiaraziko dituen Gobernuak gai horren inguruko gaurko egoera aztertzeko eta identifikatzeko, eta hura hobetuko duten ekintzak planteatzeko.

Iruñean, 2022ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **10-22/ITP-00040. Interpelazioa, Nafarroako Kulturaren 2019-2023 Plan Estrategikoaren ezarpen-mailari eta ebaluazioari buruzkoa.**

*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak Nafarroako Kulturaren 2019-2023 Plan Estrategikoaren ezarpen-mailari eta ebaluazioari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako 2019-2023rako Kulturaren Plan Estrategikoaren ezarpen-mailari eta ebaluazioari buruzko interpelazioa.

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

---

## **10-22/ITP-00041. Interpelazioa, enplegu politika aktiboei buruzkoa.**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak enplegu politika aktiboei buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau egiten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa aurkeztu du Nafarroako Gobernuari enplegu-politika aktiboei buruz, oro har.

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

## **10-22/MOC-00098. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia- tzen da bide egokiak sor ditzan Nafarroako museoak Kultura eta Kiro- leko Ministerioak sustatutako “Museoak sarean. Bidaiatu eta ezagutu” programari atxiki dakizkion.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bide egokiak sor ditzan Nafarroako museoak Kultura eta Kiroleko Ministerioak sustatutako “Museoak sarean. Bidaiatu eta ezagutu” programari atxiki dakizkion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa; horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bide egokiak sor ditzan Nafarroako museoak Kultura eta Kiroleko Ministerioak sustatutako “Museoak sarean. Bidaiatu eta ezagutu” programari atxiki dakizkion.

Zioen azalpena

“Museoak sarean. Bidaiatu eta ezagutu” Kultura eta Kiroleko Ministerioaren programa da; 2015ean abiarazi zuten, Estatuko Museoen Zuzendariorde Nagusiak kudeatzen dituen estatuko museoetara bisitak egitea errazteko, bultzatzeko eta sustatzeko, gure kultura modu irisgarrian eta ahalik eta merkeen helarazteko herritar guztiei.

Gainera, proiektua Renfe Viajetroekin elkarlanean gauzatzen da; hori horrela, Ministerioarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, deskontuak eta

abantailak eskaintzen zaizkie museoak dauden lurraldeetara joateko mugikortasun-eredu hori aukeratzen duten herritarrei.

Ildo horretatik, programara atxikitako museoetako sarreraren prezioa % 50 murriztea dakarten eskaintzak egiten ditu Renfek, baldin eta bisita trenean egindako bidaia baino 48 ordu lehenago edo geroago egiten bada.

Gaur egun, honako museo hauek parte hartzen dute akordioan: Arkeologia Museo Nazionala, Cerralbo Museoa, Amerikako Museoa, Jantziaren Museoa, Antropologia Museo Nazionala, Dekorazio Arteen Museo Nazionala, Erromantizismoaren Museo Nazionala eta Sorolla Museoa, horiek guztiak Madrilen; 'González Martí' Zeramika eta Arte Arranditsuen Museo Nazionala, Valenziako Erkidegoan; El Greco Museoa eta Museo Sefardia, Gaztela-Mantxan; Cervantesen Museo-etxea eta Eskultura Museo Nazionala, Gaztela eta Leonen; Urpeko Arkeologia Museo Nazionala, Murtziako Eskualdean; Altamirako Museo Nazionala eta Ikerketa Zentroa, Kantabrian, eta Arte Erromatarraren Museo Nazionala, Méridan. Guztiak lehen mailakoak dira, eta Nafarroako Foru Komunitateko ondare eta museo-sare nabarmena (titulartasun publiko edo pribatukoak) ere horren parte izan liteke.

Zalantzarik gabe, Foru Komunitatea ekimen horri atxikiz gero, onuragarria litzateke Espainiako herritar guztientzat, gure kultura-eskaintza lehen eskutik ezagutzeko aukera izanen bailukete; horrez gain, akordio horrek Nafarroa kultura-turismoaren erdigunean jartzeko balioko luke, zeinak hainbat esparrutan eta ikuspegi ekonomiko eta sozial batetik eragin positiboa baitu, kultura ardatz duen kalitatezko turismo jasangarria bultzatuta.

Halaber, ekimen oso positiboa litzateke Nafarroako herritarrentzat, bidaia kulturalak herrialdeko gainerako lekuetan merkeago eta errazago egiteko aukera izanen bailukete.

Ildo horretan, Nafarroak 'Museos en Red' programan parte-hartzeak eragin onuragarria izanen luke gure komunitaterako eta gure kulturaren esparruan; gainera, horrek ez lieke inolako kosturik ekarriko foru erkidegoaren funtsei, eta ezagutzaren munduari ate irekia litzateke, beste lurralde

batzuetara ahalik eta ingurumen-aztarnarik txikienarekin bidaiatu nahi duten Nafarroako herritar guztientzat, garraibide arrunt eta ekologikoen bidaiatzean.

Horregatik guztiagatik, Navarra Suma talde parlamentarioak honako erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

- Ekintza egokiak egin ditzan Nafarroako museoek, titulartasun publiko zein pribatukoek, aukera izan dezaten 'Museoak sarean. Bidaiatu eta ezagutu' programari atxikitzeko, programaren erreferentziazko kultura-zentroen sarea handitu

eta gure komunitatean turismo kulturala bultzatzeko, baita Nafarroako Foru Komunitateko herritarren kultura-mugikortasuna errazteko ere.

- Programa hori balioan jarri eta susta dezan, bai eta kultura ere, jatorriko hirian ibilbidea hasten denetik, Foru Komunitateko hirietako turismo-bulegoen eta Nafarroako Gobernuak kultura sustatzeko dituen komunikazio-bide guztien bidez.

- Turismo kulturala bultzatzea dezan, isuriez bezainbatean gutxien kutsatzen duten garraiobideen erabileraren bidez, kasu honetan, trenaren bidez.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-22/PES-00321. Galdera, Netquality SL enpresak 2014tik jasotako dirulaguntzei buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko galdera, Netquality SL enpresak 2014tik jasotako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Informazioa eskatzen da, idatziz, Netquality SL enpresak 2014tik gaur egun arte jasotako dirulaguntzen inguruan.

Iruñean, 2022ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

**10-22/PES-00322. Galdera, Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako akordioari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako akordioari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zer arrazoi daude zure departamentuak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin akordioa azkar amaitu ez izateko Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko?

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

**10-22/PES-00323. Galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako lankidetza-akordioa amaitzeko aurreikusitako datari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko.**

**MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako lankidetza-akordioa amaitzeko aurreikusitako datari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zure departamentuak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako lankidetza-akordioa amaitzeko aurreikusitako data, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko eta uraren eskuragarritasuna hezegunearen kudeaketarako.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui



## **10-22/PES-00324. Galdera, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko larrialdi-plan bat ote dagoen jakiteari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko larrialdi-plan bat ote dagoen jakiteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zure departamentuak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak akordio bat sinatu zuten Bardeetako 2. zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin, Figarolgo kontzejuko Bi erresumen urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Bada, ba al dago larrialdi-planik, akordio hori denboran luzatuz gero aplikatu ahal izateko, hezegunea guztiz kolapsatu ez dadin ur faltaren ondorioz?

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **10-22/PES-00325. Galdera, Ingeleseaz Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredu bilakatzeko dekretuaren idazketa kudeatzeko aholkularitza pribatu bat kontratatzeari buruzkoa.**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, Ingeleseaz Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredu bilakatzeko dekretuaren idazketa kudeatzeko aholkularitza pribatu bat kontratatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Prentsan agertutako informazioaren arabera, Hezkuntza Departamentuak aholkularitza-enpresa pribatu bat kontratatu du Ingeleseiz Ikasteko Pro-

grama (PAI) Nafarroako hezkuntza-sistemako hezkuntza-ereduetako bat bihurtzeko dekretuaren idazketa kudeatzeko. Zer enpresa kontratatu da; zein izan da enpresa kontratatzekeo jarraitutako prozesua; zer zeregin esleitu zaizkio enpresa horri aipatutako foru-dekretua lantzeko prozesuan; eta zein dira enpresa hori kontratatzekeo arrazoiak?

Iruñean, 2022ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe



